

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Gobernuak trenbide-korridoreari buruzko informazio eta gizarte-eztabaidako fase bat hasi du

*Ekarpenak egin nahi dituzten pertsonak, erakundeek eta taldeek gaurtik aurrera egin dezakete Gobernu Irekiaren atarian*

Astelehena, 2017.eko irailak 11

Foru Gobernuak Kantauri-Mediterraneoko trenbide-korridoreari buruzko informazio eta gizarte-eztabaidako bide bat jarri du eskuragai Gobernu Irekiaren webgunean



Abiadura handiko tren.

([www.gobiernoabierto.navarra.es](http://www.gobiernoabierto.navarra.es)), nahi duten pertsonak, erakundeek eta taldeek beraien ekarpenak egin ditzaten eta Gobernuak haiei erantzun diezaien. Eztabaidatzeko gunera gaurtik aurrera sartu ahalko da eta proiektuaren laburpen bat eta 23 eranskin biltzen ditu.

Irekia eta iraunkorra den prozesu baten lehen fasea da. Nafarroako Gobernuak trenbide-korridorearen proiektua garatzen den bitartean gertatzen diren aurrerapenen berri emango die herritarrei.

Prozesu honetan, korridorea eraikitzen den Nafarroako eremuen iritzia kontuan hartuko du. Horrela, informazio-saioak egingo dira Iruñean, Altsasun, Castejonen, Tuteran eta Tafallan.

Horrez gain, hemendik gutxira, web-orri iraunkor bat ere aterako da, proiektuaren garapenari buruzko nobedade guztiak jasotzeko.

Ekarpenak egin nahi dituzten herritarrek esteka honen bidez egin dezakete:

<https://gobiernoabierto.navarra.es/es/participacion/procesos/corredor-ferroviario->